

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

2ff8e9f0737b1a3473cf30a3bc66eaf02feb8182847fc49bcd51cccfc89faffa

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2024.09.26**

Tolosako Udaletxean, 2024ko irailaren hogeita seian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzaria bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

### **Bertaratutako zinegotziak:**

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)  
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)  
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)  
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)  
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)  
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)  
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)  
Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV)  
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)  
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Kontuhartzaile akzidentala:**

Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gai-zerrenda**

1. Akta hauek onartzea:  
2024ko uztailaren 24ko ohiko osoko bilkurakoa.  
2024ko abuztuaren 30eko ezohiko osoko bilkurakoa.
2. Onartzea prezio publikoko ordenantzaren 3.1.8. eranskinaren aldaketa, Euskaltegia.

3. Onartzea Itxitako ekitaldiko fakturak.
4. 08/2024 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu transferentzien modalitatekoa.
5. 09/2024 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.15. Galderak eta eskaerak.
6. Onartzea Tolosako Udala 311/2024 Prozedura Laburtuan pertsonatzeko proposamena.
7. Galderak eta eskaerak.
8. Zinegotzi baten kargu uztearen jakitu izatea.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. AKTA HAUEK ONARTZEA:**

**2024KO UZTAILAREN 24KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

**2024KO ABUZTUAREN 30EKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako aktak aztertu dituzte. Batzarkideek aho batez onartu dituzte.

**2. ONARTZEA PREZIO PUBLIKOKO ORDENANTZAREN 3.1.8. ERANSKINAREN ALDAKETA, EUSKALTEGIA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko irailaren 18ko irizpena

## IKUSIRIK

**LEHENA.-** Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela eta 2024ko maiatzaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkurak, euskaltegiko 2024-2025 ikasturteko prezio publikoen aldaketak onartu zituela.

**BIGARRENA.-** Euskara eta Hezkuntza sailak prezio publikoen ondorengo eranskinak aldatzea proposatu duela:

Lehena.- HABEko zuzendariak, 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bitartez (EHAA, 178. zk, 2024-09-12), dirulaguntza-deialdia egin du 16-18 urteko ikasleek euskararen C1 komunikagaitasun-mailako ikastaroak egin ditzaten 2024-25 ikasturtean.

Bigarrena.- HABEren ebazpenean jaso denez, hau izango da dirulaguntzaren sistema: ikasleak orduko 0,20 euro ordainduko du matrikulan, eta gainerakoa HABEK

finantzatuko du, zuzenean udal-euskaltegiari ordainketa eginez. 2024-2025 ikasturteko prezio publikoetan finkatu da orduko 1,89 euroko prezioa duela jardun biko ereduak, eta 2024-2025 ikasturtean C1 mailan 102 orduko ikastaroa antolatu da: 192,78 eurokoa da matrikularen prezioa. Hortaz, HABEren dirulaguntza-sisteman sartutako ikasleek 20,40 euro ordainduko lituzkete (102 ordu x 0,20 euro), eta HABEK, diferentzia, 172,38 euro.

Hirugarrena.- 2024ko prezio publikoen aplikazio-arauetan hau ageri da:

«3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 20 euro (ikasleak ordainduko ditu).
- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEK ordainduko du)».

Aldatu egin behar da arau hori, eta honako hau adierazi: matrikulazio-epean orduko 0,20 euro ordainduko dituztela ikasleek. Hortaz, honela utzi beharko litzateke atal hori:

«3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 0,20 euro orduko (ikasleak ordainduko ditu).
- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEK ordainduko du)».

Laugarrena.- Bestalde, HABEko zuzendariak, 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bitartez (EHAA, 177. zk, 2024-09-11), dirulaguntza-deialdia egin du 2024-2025 ikasturtean A1 maila ikasten duten ikasleei dirulaguntzak emateko, dagozkion oinarriak zehazturik.

Bosgarrena.- HABEren ebazpenean jaso denez, hau izango da dirulaguntzaren sistema: ikasleak orduko 0,60 euro ordainduko du matrikulan, eta gainerakoa HABEK finantzatuko du, zuzenean udal-euskaltegiari ordainketa eginez. 2024-2025 ikasturteko prezio publikoetan finkatu da orduko 1,35 euroko prezioa duela aurrez aurreko taldeetan izena emateak. 2024-2025 ikasturtean, hiru ordu-bolumeneko ikastaroak daude maila horretan: 342 ordu, 276 ordu eta 272 ordu. HABEko zuzendariaren ebazpenean, muga bat jarri zaio HABEren laguntzari: gehienez 330 ordu lagunduko ditu. Horrenbestez, 342 orduko ikastaroaren kasuan, 12 ordu geratuko litzateke HABEren dirulaguntzatik kanpo.

Hau litzateke, hortaz, finantzaketa-eskema:

Orduak	Prezio osoa	Ikasleak	HABEK
342	461,70 €	214,20 € (198+16,20 €)	247,50 €
276	372,60 €	165,60 €	207,00 €

272	367,20 €	163,20 €	204,00€
-----	----------	----------	---------

Autoikaskuntzan ere egin daiteke A1 maila; kasu horretan, orduko prezioa 2,42 euro da:

Orduak	Prezio osoa	Ikasleak	HABEk
190	459,80 €	114,00 €	345,80 €

Seigarrena.- Ikasle tolosarren kasuan, ikasleek matrikula osoa aurreratu behar ez izateko sistema bat dauka Udalak: ikasleek hasieran soilik zati bat ordaintzen dute, dirulaguntzak estaltzen ez duena, eta gainerakoa dirulaguntzarekin konpentsatzen da ikasturte amaieran. A1 mailan, % 95ekoa izango da Udalaren dirulaguntza, eta, beraz, ikasle tolosarrek matrikularen % 5 ordaindu behar dute hasieran. Alde horretatik, eta kontuan hartuta euskararen ezagutza sustatzeko eskumena partekatua dela, egokia da Udalaren sistema eta HABEren dirulaguntza uztartzea. Hau izan daiteke formula: batetik, ikasle tolosarrei, aurreikusi bezala, % 5 kobratzea ikasturte hasieran; bestetik, HABEren dirulaguntza eskatzea, hark dagokion zatia jar dezan; eta hirugarrenik, Udalak dirulaguntza ematea ikasleari, matrikularen gainerako zatia horrela estaltzeko. Honela:

Orduak	Prezioa	Ikasleak hasieran	HABEk	Udal-dirulaguntza
342	461,70 €	23,09 €	247,50 €	191,11 €
276	372,60 €	18,63 €	207,00 €	146,97 €
272	367,20 €	18,36 €	204,00 €	144,84 €
190(a)	459,80 €	22,99 €	345,80 €	91,01 €

Zazpigarrena.- 2024ko prezio publikoen aplikazio-arauetan puntu berri hau sartzea proposatzen da:

«HABEren eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, A1 helburu duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio-epean: 0,60 euro orduko, betiere 330 orduraino (ikasleak ordainduko ditu). Ikasle tolosarren kasuan, aplikazio-arau hauetan jaso bezala, matrikula osoaren % 5 ordainduko du ikasleak

- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)».

## KONTUAN HARTURIK

- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru araeuan honakoa xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak*
- *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*
  - 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onspena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

**LEHENA.-** Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (Euskaltegia) aldatzea:

*«3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetza hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:*

*- Matrikulazio epean: 0,20 euro orduko (ikasleak ordainduko ditu).*

*- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)».*

**BIGARRENA.-** Prezio publikoen aplikazio-arauetan puntu berri hau sartzea:

*«HABEren eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetza hitzarmenaren ondorioz, A1 helburu duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:*

*- Matrikulazio-epean: 0,60 euro orduko, betiere 330 orduraino (ikasleak ordainduko ditu). Ikasle tolosarren kasuan, aplikazio-arau hauetan jaso bezala, matrikula osoaren % 5 ordainduko du ikasleak*

*- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)».*

**HIRUGARRENA.-** Prezio publikoen aplikazio-arauetan taula berri hau sartzea:

Laburbilduz, ordainketa epeak hauek dira:

	HERRITARRAK		HABEK	HERRITARRAK
	Azaroaren 15a baino lehen	Abenduaren 15a baino lehen	Abenduan	Irailaren 30a baino lehen
<b>TOLOSAN ERROLDATUTA</b>				
A1	%5		0,75€/ord*	Gainontzekoa
C1C1(16-18 urte)	0,20 €/ord		Gainontzekoa	
B1-B2	%5			Gainontzekoa
C1	%25			Gainontzekoa
C2	%50			Gainontzekoa
<b>TOLOSAN EZ ERROLDATUTA (epe bakarrean)</b>				
A1	Gainontzekoa		0,75 €/ord	
C1C1(16-18 urte)	0,20 €/ord		Gainontzekoa	
Gainontzekoak	%100			
<b>TOLOSAN EZ ERROLDATUTA (bi epetan)</b>				
A1	Gainontzekoaren 2/3	Gainontzekoaren 1/3	0,75 €/ord	
C1C1(16-18 urte)	(0,20 €/ord)x 2/3	(0,20 €/ord)x 1/3	Gainontzekoa	
Gainontzekoak	2/3	1/3		

### Gehienez 330 ordu

**LAUGARRENA.-** Ordenantza honetako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluaren xedatutakoarekin bat etorrira, hasierako onarpena jaso ondoren aldaketa hauek jendaurrean jarriko dira ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Aldaketa hauek indarrean sartuko dira behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.”

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkak:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENENA.-** Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (Euskaltegia) aldatzea:

*«3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:*

*- Matrikulazio epean: 0,20 euro orduko (ikasleak ordainduko ditu).*

*- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)».*

**BIGARRENA.-** Prezio publikoen aplikazio-arauetan puntu berri hau sartzea:

*«HABEren eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, A1 helburu duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:*

*- Matrikulazio-epean: 0,60 euro orduko, betiere 330 orduraino (ikasleak ordainduko ditu). Ikasle tolosarren kasuan, aplikazio-arau hauetan jaso bezala, matrikula osoaren % 5 ordainduko du ikasleak*

*- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)».*

**HIRUGARRENA.-** Prezio publikoen aplikazio-arauetan taula berri hau sartzea:

Laburbilduz, ordainketa epeak hauek dira:

	HERRITARRAK		HABEK	HERRITARRAK
	Azaroaren 15a baino lehen	Abenduaren 15a baino lehen	Abenduan	Irailaren 30a baino lehen
TOLOSAN ERROLDATUTA				
A1	%5		0,75€/ord*	Gainontzekoa
C1C1(16-18 urte)	0,20 €/ord		Gainontzekoa	
B1-B2	%5			Gainontzekoa

C1	%25			Gainontzekoa
C2	%50			Gainontzekoa
TOLOSAN EZ ERROLDATUTA (epe bakarrean)				
A1	Gainontzekoa		0,75 €/ord	
C1C1(16-18 urte)	0,20 €/ord		Gainontzekoa	
Gainontzekoak	%100			
TOLOSAN EZ ERROLDATUTA (bi epetan)				
A1	Gainontzekoaren 2/3	Gainontzekoaren 1/3	0,75 €/ord	
C1C1(16-18 urte)	(0,20 €/ord)x 2/3	(0,20 €/ord)x 1/3	Gainontzekoa	
Gainontzekoak	2/3	1/3		

**\*Gehienez 330 ordu**

**LAUGARRENA.-** Ordenantza honetako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, hasierako onarpena jaso ondoren aldaketa hauek jendaurrean jarriko dira ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Aldaketa hauek indarrean sartuko dira behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du prezio publikoko ordenantzaren 3.1.8. eranskinaren aldaketa, Euskaltea.



### **3. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko irailaren 18ko irizpena

#### **IKUSIRIK**

2024an 1.eranskinean agertzen diren fakturak jaso dira eta 2022 eta 2023 ekitaldietako faktura data dute.

Aipatutako fakturek dagokion sailaren oniritzia jaso dute.

#### **KONTUAN HARTURIK**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2023ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturei dagozkion obligazioak onartu gabe zeuden eta 2024ko aurrekontutik onartuko dira.

Fakturak onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko irailaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

#### **IRIZPENA**

Itxitako ekitaldietako 1.eranskineko fakturak onartzea.



**1.eranskina**

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA (€)
2024/01/17	2022/04/10	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400277751	AGINTARI KALEA	7,38
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400261635	KORREO KALEA, 27 PORTALEKO ARGIA	12,45
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400257588	Euskal Herria Plaza, 1 Bis-eko 412 apartamenduko argia	27,81
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400093656	EUSKAL HERRIA PLAZA, 1 BIS-eko GARBITEGIKO ARGIA	363,56
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400090402	EUSKAL HERRIA PLAZA, 1 BIS BEHEKO ARGIA	42,76
2024/01/18	2022/04/05	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400035707	ERREMENTARI KALEA	1.218,49
2024/01/18	2022/04/07	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400133955	NAFARROA ETORBIDEA	639,03
2024/01/18	2022/04/08	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400199327	PLAZA ZARRA	99,41
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400261634	KORREO KALEA	68,34
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400245781	SAN ESTEBAN AUZOA	84,67
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400073483	ORIA KALEA	43,71
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400084651	SANTA KLARA KALEA	111,68
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400269962	EUSKAL HERRIA PLAZA, 1 BIS-eko TRASTEROETAKO ARGIA	31,98
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400090401	BERRIA, PLAZA	33,87
2024/01/18	2022/04/05	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400002370	INPERNU	673,92
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400094859	Euskal Herria Plaza	22,09
2024/01/18	2022/04/08	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400199326	SAN ESTEBAN AUZOA	330,00
2024/01/18	2022/04/10	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400277750	SANTA MARIA PLAZAKO ARGIA	6,24
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400269961	EUSKAL HERRIA PLAZA	112,61
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400074025	KORREO KALEA	65,29
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400248165	EMETERIO ARRESE KALEA	145,81
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400098271	EUSKAL HERRIA PLAZA	144,06
2024/01/18	2022/04/10	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400277608	LURRAMENDI IBILTOKIA	4,19
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400251304	PLAZA BERRIA	54,18

ESKUA4b64b1d-a29f-4344-830d-a4cb3e14f79e



HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA (€)
2024/01/18	2022/04/05	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400035708	Euskal Herria Plaza, 1 (EVENTOS) ARGIA	92,83
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400084652	VERDURA PLAZA, 2ko ESKAILERATAKO ARGIA	32,68
2024/01/18	2022/04/08	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400204135	PABLO GOROSABEL,52 B - 1. ETXEBIZITZAKO ARGIA	67,58
2024/01/18	2022/04/07	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400156480	KALE NAGUSIA	12,30
2024/01/18	2022/04/05	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400038173	GIPUZKOA PLAZA	44,39
2024/01/18	2022/04/05	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400018276	EUSKAL HERRIA PLAZA	89,99
2024/01/18	2022/04/06	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400090403	INPERNU KALEA	173,91
2024/01/18	2022/04/09	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400269365	LETXUGA KALEA	18,77
2024/01/18	2022/04/07	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400133956	IBARRALDE KALEA	121,39
2024/01/18	2022/04/11	CIDE HCENERGIA S.A.	1CSN220400283879	EMETERIO ARRESE KALEA	872,36
2024/06/12	2023/07/20	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102029763	EUSKAL HERRIA PLAZA, 1 BIS-eko GALDERAKO ARGIA	165,93
2024/06/12	2023/07/20	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102029766	LETXUGA KALEA, 4 - ESK. 2ko ARGIA	4,25
2024/06/12	2023/07/20	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102029765	LETXUGA KALEA, 4 -4. ETXEBIZITZAKO ARGIA	26,90
2024/06/12	2023/07/11	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235101883713	KORREO KALEA, 27ko PORTALEKO ARGIA	2,59
2024/06/12	2023/07/20	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102029767	Euskal Herria Plaza, 1 - 3. 308 etxebizitzako argia	5,00
2024/06/12	2023/07/11	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235101914697	EUSKAL HERRIA PLAZA 1 BI 4ko ARGIA	5,00
2024/06/12	2023/07/20	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102029764	KORREO KALEA, 27KO ESKAILERATAKO ARGIA	15,14
2024/06/12	2023/07/21	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102031799	Euskal Herria Plaza, 1-3º 304 apartamenduko argia	6,00
2024/06/12	2023/07/21	CIDE HCENERGIA S.A.	FE20235102031797	Euskal Herria Plaza,1 Bis-eko 412 apartamenduko argia	7,18

Guztira : 6.107,72

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu ditu itxitako ekitaldiko fakturak.

#### 4. 08/2024 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEKOA.

2024/08 kreditu transferentzien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da.

2024/1791 Alkateordearen dekretuak honela dio:

### **ALKATEORDEAREN DEKRETUA**

**ANDER FIGUERIDO ZUBIRIA** Tolosako Udaleko jarduneko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2024/1608 Alkatetza Dekretuak, 2024ko uztailaren 5ekoak, alkateordeari emandako eskumenez baliatuta

### **IKUSIRIK**

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 8/2024 espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa. Honek, ondoko taulako xehetasuna dauka:

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.227.10.931.00 2024	POSTA ZERBITZUAK. ADMINISTRAZIO FINANTZARIOA	60.000,00	60.000,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>60.000,00</b>	<b>60.000,00</b>	<b>0,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.227.10.920.00 2024	POSTA ZERBITZUAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	85.000,00	60.000,00	145.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>85.000,00</b>	<b>60.000,00</b>	<b>145.000,00</b>

**KONTUAN HARTURIK**

Kontu-hartzaileak idatzitako txostena, non adierazten den espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29.artikuluaren ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

**EBAZTEN DUT**

**LEHENA.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuen (bajak)**

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	60.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>60.000,00</b>

**Kreditua transferituko duten gastuen (altak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	60.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>60.000,00</b>

**BIGARRENA.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

**Alkateordeak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ALKATEORDEA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Ander Figuerido Zubiria

Antton Rivero Urbistondo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**5. 09/2024 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.**

2024/09 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da.

2024/1864 Alkatearen dekretuak honela dio:

**ALKATETZA DEKRETUA**

**ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

**IKUSIRIK**

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 9/2024 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Honek, ondoko taulako xehetasuna dauka:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0500.227.04.231.00 2024	KONTRATU SOZIO KULTURALAK.GIZARTE ZERBIT	906.300,00	42.500,00	948.800,00
<b>GUZTIRA</b>		906.300,00	42.500,00	948.800,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2024	DIRUZAINZA GERAKINA. GASTU OROKORRAK	42.500,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>42.500,00</b>

ESKUa4b64bid-a29f-4344-830d-a4cb3e14f79e

## KONTUAN HARTURIK

Kontu-hartzaileak idatzitako txostena, non adierazten den espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

## EBAZTEN DUT

**LEHENA.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

## KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	42.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>42.500,00</b>

## FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	42.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>42.500,00</b>

**BIGARRENA.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.



**Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**GAI ZERRENDATIK APARTE ETA GAIAREN PREMIATASUNA DELA ETA, UDALBATZAK, AHO BATEZ ONARTU ONDOREN, HONAKO GAI HAU AZTERTU DU:**

**6. ONARTZEA TOLOSAKO UDALA 311/2024 PRZEDURA LABURTUAN PERTSONATZEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurari aurkezten zaion irizpena

**IKUSIRIK**

2024ko irailaren 12an Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak Donostiako Administrazioarekiko 2 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri du Udalbatzak 2024ko ekainaren 10ean hartutako erabakiaren aurka, zeinen bidez Biologoek Elkargo Ofizialak jarritako berraztertze errekurtsua ezesten den, 2024ko Lanpostu zerrenda onartzen duena.

Zehazki bere helegitea puntu honetan oinarritzen da: "Ingurumen, jasangarritasun eta landa eremuko teknikari" lanpostua hornitzeko, titulazioei dagokionean, biologoek lizentziatura ere sar dadila eskatzen du, udalak jarritako beste titulazioez gain (hau da, ingurumen zientziak, baso ingeniarietza, nekazaritzako ingeniarietza).

**KONTUAN HARTURIK**

Lehena.- Apirilaren 18ko Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 167.1. artikulua ondorengoa xedatzen du:

“Artículo 167.

1. Los funcionarios de carrera de la Administración local que no tengan habilitación de carácter nacional se integrarán en las escalas de Administración General y Administración Especial de cada Corporación, que quedarán agrupadas conforme a lo dispuesto en la legislación básica del Estado sobre función pública, en los grupos que éste determine, de acuerdo con la titulación exigida para su ingreso.”

Bigarrena.- Ondoren, 170.1. artikuluan ondorengoa zehazten da:

“Artículo 170

1. Tendrán la consideración de funcionarios de Administración Especial los que tengan atribuido el desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio.”

Hirugarrena.- Lanpostuaren funtzioak ondorengoak dira:

Erantzukizun orokorrak:

Ingurumen Sailaren kudeaketa egitea.

Lan esanguratsuenak:

LANDA-EREMUA ETA INGURUMENA:

1. Lurzoru urbanizaezineko nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektuen espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.
2. Landa-eremuetako azpiegiturak eta bideak mantentzeko eta hobetzeko lanen beharra proposatzea, eta haien kontrola eta ikuskapena egitea.
3. Landa-eremuko bideen erabilera bereziko espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.
4. Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eskaera-espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.

5. Hirigintzako kontsultei, jardueri, katastroari, auzo-bideei eta abarri buruzko irizpen teknikoa ematea.
6. Lurzoru urbanizaezinean zehapen-espeditenteak instruitzea.
7. Bere eskumeneko espeditenteen gainean ikuskapenak eta txosten teknikoak egitea.
8. Hondakinak zuzen kudeatzen direla zaintzea, eta mankomunitatearen lana ikuskatu eta koordinatzea.
9. Hirigintzako plan eta proiektuetan behar diren ingurumen-txostenak idaztea.
10. Ingurumenaren gainean hezkuntza eta sentsibilizaziorako udal-kanpainak, -proiektuak eta -ekimenak zuzendu eta planifikatzea.
11. Udal-ingurumenaren kalitatea kontrolatzeko ekintzak egitea.
12. Txostenak egitea, landa-auzoetarako dirulaguntzak eskatzeko.

#### UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

13. Bere funtzio-eremuko espeditenteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
14. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
15. Unitatearen urteko aurrekontu-proposamena egitea, eta haren jarraipena egitea, exekuzioa kudeatuta.
16. Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.
17. Sailen arduradunen aldian behingo bileretan parte hartzea.

#### EGINKIZUN KOMUNAK:

18. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
19. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
20. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.

21. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
22. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
23. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Laugarrena.- Tolosako Udalak aurreikusten du Ingurumena, jasangarritasuna eta landa-eremuko teknikariak landa-eremuan egin beharreko lanak direla eta, beharrezkoa duela ingurumen zientzietan, baso ingeniarietan, nekazaritzako ingeniarietan edo parekatuan graduatua izatea. Aldiz biologiako titulazioa ez duela behar kontsideratzen da, katalogoen funtzioen dokumentuan deskribatu diren funtzioak aztertu ondoren.

Bosgarrena.- Uztailaren 13ko 28/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz, udala alderdi demandatu gisa pertsonatu behar da, eta udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea proposatzen da: Javier Hernaez Manrique.

Seigarrena.- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, bere 82 eta 83 artikuluetan xedatzen du, Alkateak behar bezala arrazoituta urgentziatzko arrazoiengatik, dagokion informazio-batzordeak aldez aurretik jakinarazi ez dituen gaiak gai-zerrendan sar ditzakeela, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko erabakirik hartu osoko bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi gabe.

“Art. 82.

1. El orden del día de las sesiones será fijado por el Alcalde o Presidente asistido de la Secretaría. Asimismo, podrá recabar la asistencia de los miembros de la Comisión de Gobierno y, donde ésta no exista, de los Tenientes de Alcalde, y consultar si lo estima oportuno a los portavoces de los grupos existentes en la Corporación.
2. En el orden del día sólo pueden incluirse los asuntos que hayan sido previamente dictaminados, informados o sometidos a consulta de la Comisión Informativa que corresponda.
3. El Alcalde o Presidente, por razones de urgencia debidamente motivada, podrá incluir en el orden del día, a iniciativa propia o a propuesta de alguno de los portavoces, asuntos que no hayan sido previamente informados por la respectiva Comisión Informativa, pero en este supuesto no podrá adoptarse acuerdo alguno sobre estos asuntos sin que el Pleno ratifique su inclusión en el orden del día.
4. En el orden del día de las sesiones ordinarias se incluirá siempre el punto de ruegos y preguntas.

Serán nulos los acuerdos adoptados en sesiones extraordinarias sobre asuntos no comprendidos en su convocatoria, así como los que se adopten en sesiones ordinarias sobre materias no incluidas en el respectivo orden del día, salvo especial y previa

declaración de urgencia hecha por el Órgano correspondiente, con el voto favorable de la mayoría prevista en el artículo 47.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.”

Kasu honetan, premiazkoa da gaia ebaztea, izan ere epaitegiak 20 lanegunetako epean, espedientea epaitegira igorri eta udalaren defentsa eta ordezkaritza izendatzeko eskaera egin bait du.

Guzti hau kontuan hartuta, hauxe da Udaleko osoko bilkurari luzatzen zaion.

### IRIZPENA

Lehena.- Udalbatzak, “Tolosako udala 311/2024 prozedura laburtuan pertsonatzeko” gaia, gai zerrendan sartzea berrestea eta gaiaren premia deklaratzeko.

Bigarrena.- Tolosako udala 311/2024 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdi demandatu gisa agertzea.

Hirugarrena.- Espediente administratiboa Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 20 laneguneko epean, Epaitegiko ofizioa eta erantsitako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko Javier Hernaez Manrique jauna abokatu gisa izendatzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udala 311/2024 Prozedura laburtuan pertsonatzeko proposamena.

## **7. GALDERAK ETA ESKAERAK**

## **8. ZINEGOTZI BATEN KARGU UZTEAREN JAKITUN IZATEA.**

EUZKO ALDERDI JELTZALEA/PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldearen zinegotzia den Javier Balerdi Tolosa Jk. karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udalbatzak honako hau

### **ERABAKI DU**

**Lehen.-** Jakinaren gainean geratzea EUZKO ALDERDI JELTZALEA/PARTIDO NACIONALISTA VASCOren taldeko Javier Balerdi Tolosa Jk. zinegotzi karguari uko egin diola.

**Bigarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea dagokion kredentziala eman dezala alderdi horren ordezkariak izendatutako hautagaiaren alde, zinegotzi-kargua bete dezan.

**Hirugarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Besterik gabe, 19:40ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARIA



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2024IPLE0012-2024/09/26 akta/2024/09/26 akta ()